

## **AZKEN DANTZA**

Gizarteak gizatasunetik gutxi eta artetik bat ere ez duen garaiotan, albisteak jarri orduko "mute" botoia sakatzea tamalgarria iruditzen zait, baina normala. *Gaur Egun* hasi eta laburpenean soilik munduko hiruzpalau gerrate azaltzen dira, guduak laburtu ahal izango balira bezala. Mundua hankaz gora dago, hala ere behekoek behean jarraitzen dute eta goikoek goian, sorginkeria dirudi.

Sorginak politikariak dira. Sorginek erratza dute eta politikariek aginte makila. Ikasia dut jada aginte makila hori akuilua dela, azienda bagina legez tratatzen baikaituzte. Gizatasunez edota gizalegez jokatzeari ahanzturan galdu dela dirudi. Ez nago ziur antzua delako ahanzari zaigun, ala ahanzari zaigulako dugun antzutzat. Egun, gizalegez jokatzeari mugikorra atera eta besteen arazoak grabatzea da. Huntza taldeak aldapan gora zioen, baina uste dut huntzak harrapatu eta beherantz tiratzen gaituela.

Arestian aipatu legez, mundua hankaz gora egon arren, gizarte-klaseek bere horretan dihardute. Gezurra dirudien arren, jendea etxerik gabe dagoen bitartean, etxeak jenderik gabe daude. Badakizue, kapitala jarrita lehenbizi, etorriko da hamaika krisi eta ezin inon bizi. Horrela bizi da jende ugari. Sabairik ez duten trajedun handiuste batzuen ondorioz teilaturik gabe bizi dira kalean. Kale kantoian kartoi batean daudenak ikustean, bi begirada oso ezberdin sortzen dira, baina biei ala biei mugitzen zaie erraia. Biak atzerantz botatzen ditu ikusitakoak, baina batek ezker begitik dakusana, besteak eskuin begitik ikusten du. Bat pobreak botako du atzerantz, bestea pobreziak. Pobreen edo pobreziaren aurka gauden eztabaidatzen dugun bitartean, pobreak pobreago egiten dira eta aberatsak ahalguztidunago.

Amesti ikusi nahi nuke mundua, baina aukerarik ez. Etengabeko aldaketez eta albiste txarrez josirik gauden honetan, esna egon behar dugu derrigor. Esna amestea litzateke onena, baina ezin. Atzar ibiltzeko esnatu egin behar da, noski, baina ezinezkotzat dut hori. Jada ez dakit esna ala ametsetan nagoen. Esan dudan gisan esna eta adi egotera behartuak gaude, baina hori bera ere sinesgaitza egiten zaidanez ametsetan nagoela pentsatzen dut. Lo egitean maindireak korapilatu ohi diren bezala korapilatu da mundua. Benito Lertxundik bere kantu batean zioena egin dugu, bizimodu lasai batengatik idealak galdu. Erosotasuna nagusi den onetan, egoismoa gailendu da eta altruismoa galdu. Alter egoa da nagusi, pertsona orok bi aurpegi baititu egun,

faltsukeria hutsean bizi gara. Aipaturiko Benitoren kantuarak "Gure bide galduak" du izena, baina ez dakit ez ote garen gu galdu bidean.

Mundua alboan utzi eta gatozen gure mundutxora. Gure mundutxoa, Euskal Herria, euskaldunon herria behar lukeena. Harro behar genuke gure herriaz, gure hizkuntzaz, baina harro ordeaz, arrastaka gabiltza. Maite ditut maite gure bazterrak lanbroak ezkututzen dizkidanean. Hala zioen Laboak, baina nik lanbroak ezkutatu gabeko bazterrak ikusi nahi nituzke, eta bai, berak dion gisan gureak. Izan ere, etsigarria zait lanbro artean ezkutatu behar izatea gure lurrak, baina lanbroa etengabe handitzen ari garela irizten dut, lanbroak ostentzen duena emendatu ordeaz. Lanbroz edo lanbrorik gabe bada ere, hamaika ikusteko jaioak gara. Aurreratu zutena atzeratzen gabiltza. Eskerrak Madrildik Ayuso bezalako politikariek babesa eskaintzen diguten...

Garai batean ezin euskaraz mintzo zitekeen otsoa zela medio, eta badakigu euskaldunok ardiekin lotura dugula. Ehiza eta borroka bidez otsoa ahultzea lortu genuen, eta ardiok berriz ere beeka hasi ginen. Orain, ordea, txanogorritxuz mozorrotuta bada ere, berriz gugana dator otsoa. Denbora tarte honetan haginak zorrotzen jardun da, eta laster egingo digu hozka.

Otsoa erdi ezkutuan egon den bitartean ardiok gure beekadari doinua jarri diogu eta euskal musika izan da horren erakusle. Ruper Ordorika izan da horietako bat, doinua eman dion horietako bat, baina baita otsoaren ondorioz ardia baldar ikusi duenetako bat ere. Ruperrek zioen gisan diot nik ere inork ez zidala esan euskaldun izatea zein nekeza den. Nekeza da, bai, baina ardiontzat ez da nekerik, ez eta bide txarrik ere. Orraztu dezagun gure artile korapilatsua Mariren orraziarekin, berdin ardi zuri zein ardi beltz. Zaindu dezagun maite dugun hori.

Musikari jarraiki, ezin zitezkeen aipatu gabe utzi Pantxoa eta Peio. Horiek osatzen dute ezagutu dudana PP on bakarra. Bai, nik ere nahi nuke izan urtxintxa bezala zuhaitzik zuhaitz aritzeko. Egun, ordea, udazkena da beti eta zaurgarri samar dabilta zuhaitzak. Gauzak horrela, ezin dantzari ibili adar eta hosto artean. Giza eskubideen eta euskararen adarrak kraskatzeko zorian daude, baina itxaropenaren adarrak sendo darrai. Aterako zaizkie zuhaitzei kimu berriak, loratuko du berriz udaberriak. Orduan, txoriak berriz kantuan hasiko dira Pantxoa eta Peioren abestiak txistukatzen eta horrela hasiko dira berriro ere urtxintxak dantzari, hain gora hain trebe, izateko libre. Ez da azken dantza izango.

